

[15]

1972-Maratza

~~13~~






EUSKALTZAINDIA
AZKUE BIBLIOTEKA

Derriorreko gora-behera da
haurren ikastola lan-sail berezi-
a dela ezagutzea eta aitortzea;
denak berdin eta animatzaile bat
tartean delarik, eskuartean duten
burutu ahal izateko lan saila de-
la, alegia. Hargatik, behar" beha-
rezko dute geroari buruzko irakas-
leek izan ditezela talde-dinamika
ren esperientzia pertsonalaren ja-
be.


HERBERT

BEHINTZEN SOLASIA

Ezin osaturik bezala ibili gara oraingo zenbakian. Eta be talde, gaiei bagagozkie behintzat, denetariko agertzen da. Hala no la gogoeta sakon edo axalagokoak, jakintza mailako beste zenbait gai eta esperientziaren eremukoak ere, gutti bederen, aurpegia era kusteko bezainbat bai. Are gehiago, gai orok daraman esperientzia ren ukitua haintzakotzat hartzen badugu.




Gurasoekiko arazoak, iduri du, agortua dela, nahiz-eta azkene ko zenbakietan askok aipatzeko arazoa izan. Halere, ez dugu uste ahitu eta arrunt gastatua denik, zeren ikastola mugimendua erren e do hanka bakar gertatuko bait litzateke gurasoen ekintza ahaztuz gero. Oraingoan, ordea, berriketariak egiten du soilki aipamen tar bat havei buruz Federazioaren lehendakari aldakuntza dela-eta.



Esan dezagun, heziketaren arazoak, oro har, okupatzen dituela gehienik zenbaki honen orrialdeak. Hiru idazke zein baino zeinek bizikiago planteatzen edo bere gogoetak ematen dituelarik. Ez da iritzi oro eta osoki onartu beharrik, jakina, baina jakingarririk asko bada orrialde horietan barna benetan sakondu eta ikertu nahi du- narentzat.



Erljioak du, azkenik, interes apur bat azaltzen. Agian, han-hemenka eta nonahi ere, bai gurasoei buruz eta bai elizgizonei buruz bizi den giroa ikusirik pobre gelditzen dira edo behintzat ez dira hain espresagarri. Dena dela, geure eskasean, bildu dena emateko lotsarik ez dugu eta garen baino goragoko maila batetan azaldu nahirik edo handiusterik ere ez.



⁴ KONTZIENTZIA- HAZTEAZ

Orain dela hiru-lau bat numero azaldu zen lan batek eraman gaitu gai horretaz zenbait pentsakizun azaltzera. Lan hori "Pedagogia Askatzailea" izenburuarekin atera zen eta gure ustez zauri-an jarri zuen beatza.


Gaur eguneko gizarte guz ~~en~~ arazoa dugu, gizartea bi giza mailetan zatitua dago eta maila boteretsuaren eskuan dago heziketaren planifikazio osoa. Kapitalismo sistiman bizi diren herrien sostengu nagusienetako bat bait da eta hau berarek ongi dakite.

Orain gogoratzen gara Brasilgo agintariak Helder Kamarari behin esan ziotena: "Zu gizon ona zarela badakigu, baina zure ideiak..., badakigu askoz arinago egiten dela gizonen kontzientziazioa, baina ordurako aldaketa egina ez badago, subersioa dator eta zu herria subersiorako prestatzen ari zara". Bestalde Helder Kamarak esaten duen zerbait gogoratzen zaigu: "Kontzientziazioa gurekin, gu gabe eta gure kontra egiten dela, ez dagoela gaur Kontzientziaziorik gabeko egoerarik; gaur egunean telebista, irrati eta azkenik argi indarririk heltzen ez den tokira transistoreak ere sartu direla". Ezin dugu beraz neutroak izan, postura bat hartuko dugu edo soziologoek esaten duten bezala, posturarik hartzen ez duenak ere, hartu du berea, dagon egoerari atxikitzea eta eustea alegia.

Gure eskoletako pedagogia Haranburuk esaten duen bezala maila batetan euskalduntzeko edo deseuskalduntzeko bide izango da eta, zabalago joaz eta eskolak bere neurri guztietan hartuaz, pertsona bere izaeraz eta inguruarekiko dituen posibilitateaz jabetzeko izanen da edo xintxo xintxo esanekoa, pilakoa egiteko.

Hau, dudarik gabe irakasleak egin behar duen aukera bat da, baina aukera egin ondoren oso argi aztertu beharko dugu gure lanean zein tresna eta nola erabili behar ditugun laguntzeko.

Gu ihardun gara lanean zenbait metodo ezberdinekin eta ezin dugu aitor gaur egun metodo berezi bat erabiltzen dugunik, baizik nahasian, batzuetan Freinet erabiliko dugu eta honek: ikaslengan dauden hainbat gauza baloratzen erakutsiko dauku, besteetan Clapareden antzera interesak bilatuaz sahiatuko gara, beste batzuetan beste bide bat hartuko dugu ikasleen beren dinamikak hala agertzen badu, baina gaur agertu nahi nuena beste zerbait zen eta nolabait aipatu ditutan metodo hoiek bere orokor ikuspegian kontuan hartzen dituenak. Gure ustez metodo honen baliorik handiena esperientzia baloratzean datza, gure akatsik handienetariko bat hau da, hutsetik hasi behar dugula uste izatea eta guretzat hau balio handiko gauza da. Esperientzia aztertuz kontzientzia kritiko bat horrek eramango gaitu askatasun aukera bat egitea, hirugarrena ekintza askatzaile bat egitea eta laugarrena, berriz, azterketa kritiko bat egitea, igaro ditugun pauso guztiena.



Hona hemen pauso bakoitzaren eginkizunak:

1º.- Kontzientzia kritiko bat hartzea.- Hau ezin da hutsean egin, pertsonalki taldeek duten esperientzian oinarriturik egin behar da.

2º.- Askatasun aukera.- Kontzientzia kritiko bat hartze honek eramango gaitu gure aurrean aukera bat baino gehiago jartzera hurrengo pauso bezala. Honi deritzaio askatasun aukera. Aukera hau askatzailea izan behar du eta aukera batzuk hartu eta besteak utzi beharko ditu. Pauso honetan oso gogoan izan behar dira aukeraturiko gauzak posibleak izan behar dutela, bestela aukera ez da ona.

39.- Ekintza.- Ekintza hau iraultzailea izan behar du eta iraultza hau hiru mailetan ikus daiteke:

- . gizona eta produzioko medioen arteko iraultza.
- . gizonen elkarrekiko harremanetan iraultza.
- . gizonak, bere barruarekiko iraultza.

Horregatik deritzaio ekintza iraultzailea.

40.- Azterketa kritikoa.- Azterketa honek, emandako pauso en rebisio batetara eramango gaitu, pauso hoik banan banan ikustea, baloratzea, aztertzea eta interpretatzea. Eta azkeneko azterketa honek berak eramango gaitu higidura horren barne berriz ere lehen eman ditugun pausotara, baina orain lehen emandakoen aldean esijenzi zorrotzagoarekin, lehen baino esperientziagehiagoren jabe bait gara. Horrela, metodo honetan etengabeko higidura bat sortzen da.

Metodo hau, batipat, pertsona larrirentzat egina da, metodo aktibo asko bezala, gero joan dira haurren eskoletara sartzen. Guk 14-17 urte bitarteko neska mutilekin eskolan frogatu dugu eta oraingoz arrunt interesgarri iruditzen zaigu, ez metodo honi soilki lotzeko, eskola batetan ekintza klase asko bait dira eta ekintza ba koitzari dagokion metodoa eta tresnaz balia behar bait dugu.


Metodo honen sortzailea Paulo Freire izan zen, Hegoameriketara hainitz lan egin zuena, pertsona larrien heziketan. Alfabetatze kanpaina frango ere eramane zituen eta alfabetatzeko metodo berri bat sortu ere. Freire konturatu zen irakurtzen eta idazten betiko modura erakusten bazuen pertsona hoik ez zituela analfabeto kondiziotik

diziotik ateratzen, morrontza baten irauten laguntzen ziela eta berretzat lehen aipaturiko lau pauso hoiene barne pertsonak erabaztekeala.

Freirentzat ez da gertakizun bakanik, honek dio, gertakizun ttikieneke ere badutela antolamendu orokor batetan parte, eta ahale gindu behar gara arazoak orokortasun horretan ikusten eta aztertzen.

Guretzako metodo honen berezitasunik handiena esperientziatik hastea da, esperientzia agertzea, kritikatztea, neurtzea, konparatzea eta ondorioz teoria handik ateratztean du.

Hona hemen Freiren metodoaren irudi soil bat :



FRANTZISKA ARREGI

8 DOMESTIKAZIOA

Hona hemen Freinet-ek domestikazioaz idatziriko zenbait puntu.

Domestikazioa nortasunaren ezabatzea daraman prozesoa da. Piskanaka pertsona aberetu egiten da eta nahi den helburu alderat bihurtitu. Abere ongi domestikatuak problema guti sortzen du eta zertarako domatua izan hura ongi betetzen du. Badirudi bestalde, gizonon zerbitzurako domatua izan diren abereak, bere zortiaz pozik direla, lanaren truke janari ugarririk izan balezate bederen. Erabat nagusiaren asmoetara jarriak egonik, haik asetzeaz behar bat betetzen ari direla pentsa dezakete. Domestikatze lan hau egin hala, abereek duten zenbait jatorrizko karakteristika ezabatzea beharrezko da. Domestikazioaren aurkako berezitasunak galarazi eta aldekoak landu egin behar dira. Azkenik abere domestikatuak bere arrazako senik jatorrenak ere galtzera heltzen da. Makurrago dena, domestikazio honek belaunaldiz belaunaldi marka ditzake pertsonak.


Pertsonen artean domestikazioa bizirik dugu, nahiz-eta jende asko iraganeko gauza dela frogatzen ahalegindu. Pertsonak, indarren eta zanpaketa gainean eraikiriko legeak eta ohiturak onartzeko eta errespetatzeko prestatzen diren heinean, domestikatu egiten dira. Egungo gizarte egiturak dituen akatsak gorde eta gizonok elkarren alboan bizitzeko beharrezko agertzen diren bakoitzean, domestikatze lana egiten da.

Giza-elkarte batetan diren okerrak salatze bideak egiten ez zaizkien aldi-oro domestikatu egiten dira. Eta haurra da, hain zuzen ere, domestikatze arriskurik handienean dagoena. Ikus dezagun nola lan hau, konkretoki, egiten den.

LEHEN ETAPA

9

Haurra, domatu behar den animalia basati baten antzo, traizioz, biolentziaz, lokal hertsiki batetan giltzapetzen da. Bere askatasunari uko egiten has dadin fisikoki ere mugatu egin behar da. Zenbait animaliak ez du hau inoiz onartuko eta beti behar ko da giltzapean zaindu.



Maiz aski eskolara behartu den zenbait hurrek ere mugatze honen esperientzia bizi egingen du. Berrero noiz askatasunaren lurraldeetara irtengo zain egonen da. Batzu ez dira inoiz "choc" honetatik sendatuko. Oso barreraino inpresio hura sartu zaie eta erreakzio askoren iturri izan daiteke.

Hau honela gerta ez dadin bide bakarra, eskolako bizi-giroa kaleko eta etxeko giroaren jarraipen izatea da. Haurrak bere bizitzan lortu duen aberastasun oro eskoletan kontserbatu eta landu ahal izanendu. Aberastasun hauek izan behar dute eskola-lanaren abiaburu. Beraz, haurra eskolara ez dator esku hutsik. Eskola aberastera dator.

BIGARREN ETAPA

Bigunki batzutan, gogorki bestetan, domatua izan den abere hau zerbait egitera bortxatuko da. Ez, noski, bere senak esanen duen eran, edo-eta bere interes barnekoiek adieraziko duten moduan, bere nagusiaren desirak asetzeko baizik. Astiro-astiro bere nortasuna ezabatu eta nagusiaren nortasunaz trukatzea komeni da. Bere kabuz ez du deus gehiago egingen. Bestela gertatzen ote hau -

rrarekin?

40

Lerroan jartzeak, isilik, besoak tolestaturik dituztela edukitzeak eta gainerako rituez domatze lana egiten da. Irakaslearen lehen garraisia entzun bezain laster denak harat-honat mugituko dira. Marionetak manaiatzen diren bezalaxe erabiliko dira. Eta desirarik egiazkoenak, asmorik sutsuenak barreneko maila batetara zokoraturik geratuko dira, reprimitu egingen dira. Hainbeste aldiz ikusi dugulako, jokabide honetaz harritzeko ahalmena galdua dugu. Nor maltzat jotzen dugu. Ez ahal dira haurrak, isilik egoten, esaneko izaten, eta aginduak betetzen tippidanik ohitu behar? Elkarren alboan bizitzeko hau beharrezko dela pentsatzen du askok. Ez ahal da horrela gizaldien zehar gertatu?

Hemen hasten eskola eta bizitzaren arteko dibortzioa. Bere asmoak agertu ezin dituen pertsona isildu egingen da. Gogoz kontra lanean ariko da, lanaren zama gehiegizkoa denean haserretu ere egingen da baina azkenik itxurazko jokabide faltsu batez, barneko asmoak ezkutatu egingen ditu. Itxuraz, egiaz ez bezalako agertze-ko egiten diren ahaleginak ahitu egiten dute pertsona. Bi bizitz indar hauek elkarren aurkako burruka eten-gabea egingen dute.


Nahiz-eta sakonean erdi lo den bizitz hau kanpora ez dadin ahalegin gogorrenak egin, noizik-behin gainezka egingen du eta itxurak haustera helduko da. Dena den jokabide bikoitz bat errespetatu beharrean aurkitzen denari, geroz-eta zailago izanen zaio egiten ari dena maitatzea edo-eta maite duena egitea. Eta ondorioz metodoen frakasoak dator.

HIRUGARREN ETAPA

Eskolastikaren funtzioa dator azkenik. Ikaslea pasibo aski bihurtu denean, irakasle autoritarioak irakaskintza jeneralizatu egiten du, Guztiei lan berdintsuak emanaz, denbora berean egin beha

rrak eta neurri berdinez neurtzeak ikaslea desnortasundu egiten du. Teknika eskolastika oro presentazioaz arduratzen da batipat. Akatsik gabea behar du izan. Huts nabarmenik balego, zenbaitetan, b̄iridaztera behartuko da haurra. Haurraren jakinmina eraginen duenik deus ere ez. Aurrerapen nabarmen batez gaiak ikasiz dohala frogatuko dionik batere ez.

Kuadernoa ez da lanerako tresna bat, ikaslea kontrolatzeko bide b̄ino. Kuadernoaren itxuraz hainbat arduratzea kausatzen duena zera da: funtsik gabe forma hutsean geratzea. "Zer esanak" ez bide du hainbeste garrantzirik, "nola esanak" du garrantzirik handiena hartzen. Dena zatika ematen da: esakun tippiak, ariketa laburrak, beti ere arazo baten alderdi proposatzen dela. Sistima hau ikuspegi orokor bat jasotzeko oso desegokia denik zer esanik, ez. Domestikatzera indartuz doha. Baina gauza hauk eskolaren "izena" jasotzen dutenez gero, ez zaite ausar garrantzirik gabeak direnik esaten! Halere norbaitek esan dezake ikasle asko eta askoren artean bakar batzuk, ez denak, izango dira domestikatuak. Ene iritziz batzuk lehenago besteak beranduago, batzuk gehiago besteak gutiago, batzuk betirako besteak denboraldi batetarako, BAINA DENAK DIRA DOMESTIKATUAK.



12 IRAKASLE BATEN GOGOETAKI

Gutako batzuentzat politika egitea, politiko mugimendu bateko izatea zen, honelako organizazio bati gure hitza ematea, gure problemak honen bidez aztertzeke. Orain aldiz, nere kabuz, pentsatzera behartua naizela ikusten hasia naiz, hemen dudan meloi honetaz baliatzen ez dautala inork irakatsiko, nere ikuspegiz gauzak aztertzeke gai izanen ez naizen artean beti naizela besteen eritziak errepikatzen ibiliko. Baina batipat honen esperientzia garrantza egin dut, hots, gizarte honetan agintea dutenek gainean direla eta aginte hau pasiboki sufritzen dutenek azpian. Ni ene eskolan aginte hori jasan besterik egiten ez duten horietako bat naiz.

Horregatik, besteek ere sentitzen duten zenbait gauza esatera noha. Orain arte beldur nintzan ene lanaren pobreziaz zerbait izkribatuz ez ote nintzen barregarri gertatuko. Halere, gauzak esaten hastea erabaki dut. Eta lehenik nik hurrekin daramadan jokabide dea oso OKERRA dela esan behar dut. Lanean hasi nintzen garaian zalantza handirik izan arren, ez nuen gehiegi pentsatu baina orain garbiago agertu da hau neretzat.

Tippien eskola. HAURREN ALMAZENA

Haurren deformazioa eta represioa ez da bere espontaneitateari mugak jartzean amaitzen, fisikoki ere muga estu batzuen barne mugitzera behartzen dira. Duela zenbait urte, aberats kume ez ziren hurrek bederen, egunaren zatirik bikainena kaleetan igarotzeko posibilitatea zuten, gero espazio hau laburtuz johan da. Lehenik hauzoo gero kalea eta azkenik eskolaren hormak inguratzen duten

espaziora. Egunero ikusten dut nola autobusak biltzen dituzten eneherriko haur guztiak, ordu batzuetarako, eguneko ordurik ederretarako bizitzatik at eramateko, soldaduak instrukzioa egitera eramaten diren eran. Ez da inor libratzean, sare honetan denak harapatzen dira. Zenbaitetan, gero poliziak bezelatsu zainduko dituzten irakasleek berek laguntzen diete autoan sartzen. Eta itzuliko diren artean ez dituzte begiz galduko. Barrenean diren denboran honetan haurrak bere reakzioak kontrolatu egin beharko ditu eta irakasle hauei atsegin zaien eran agertu. Gela bakoitzean 30 edo 40 haur-multzoak biltzen dituzte, eta irakasle ezagutu eta hezitzeko instrumento behar genuen eskola hau, haurren ALMAZENA bihurtu dugu. Haurrek ez dute beren ordurik, pertsona helduak asmatu-rikiko orduetara egon behar dute.

GUK BETETZEN DUGUN EGINKIZUNA

Tankera honetako eskola batetan betetzen dugun funtzioa poliziarena da. Eta honetarako buruan sartu daukute, urte luzez, gure profesioaren dintasunaren MITOA.

Orain ikusi dudanez ni ere PRODUZITZEN ARI naiz. Eskatu daukuten gizon klaseak sailean produzitzen ditut. Ene aldamenean den fabrika handian daramaten produkzioaren prozesoa nereaz gonbara badezat, ene haurrak ere kate-produkzio baten piezak besterik ez direla ikusiko düt. Eta neri seinlatu dautaten produkzioaren planoaz heziketa-sistema izenaz bataiatu dute.

Begiak ireki baditzat, ene eskolan den ranaren mailaketa eta banaketa beste edozein giza-erakunderen antzeko dela ikus dezaket. Nere gainera burokrasia hutseko arazoak konpontzen dituen zuzendaria eta gehientsuenetan NAGUSIAREN oihartzuna gureganatzen duena. Jatorra denean ere, berarekin egin dezakedan elkarriketa oro haseratik faltsuturik da ene beldurrez, bai, ene izen o

na galtzeko beldur naiz. Nere azpitik egunero gelak garbitzera etorri ohi den emakumea. Ni izpirituaren heziketarako jarria naiz hura aldiz komunak garbitzeko. Baita gure artean ere bada maila keta bat. Azkenik eskolara etorri direnei ez bide zaie zaharragoei hainbateko kategoriarik eman behar. Baina hauk denak ongi finkaturiko ohiturak izanik nork kontestatuko ditu?

AURRERAPENA ETA PEDAGOGIAREN ERREBERRITZEA

Seguraski datozen urteetan ere eskola hauetako pedagogia aldatu egingen da. Egingen diren aldakuntzak ez dira ene gogoko izan. Oraingoz hau ongi dakit. Denbora luzea dela, zenbait espezialista ordu luzez, luma eskuetan duela eskolaren akatsak aztertzen ari zaiku, ondoren onik ekarri ez duten legeek sanotzen ahaleginduko zaizkigu. Inoiz ere ondorio txar hauen jatorrizko kausatara heltzen ez direla. Ene eritziz eskolan agertzen diren erru hauen funtsezko arrazoiak eskolaz kanpo dira eta pentsatu ere egiten dut ez direla inoiz oker hauk zuzenduko gizarte honen eraketa irauliko ez dugun artean.

Badakit jakintsu horik laboratorioan egiten ari zaizkigun lege hoiak betetzera behartuko nautela. Orduan oker batzuk zuzenduko ditugula uste dut. Beste edozein nazioetan lortu duten irakaskintza eraketaren kopia bat egingen dugu. Ondorenez produkzioaren kate honen efektibitatea, ni ere azkartzera behartuko naute.

Sentitzen dut ene ikasleen gurasoek, beren haurren heziketaz oso arduratzene direla. Produkzioaren kate honetan gora jotzeko seme-alaba trebeak atera badezaizkiet ni ere gora jaso eta estimatuko naute, bestela ni zokoratzen saiatuko dira. Hitzez nahiz eginez hau egin dezaidaten berdin zait. Ene metodoez ez dira gehiegi arduratuko, programak eskatzen dutena bete baneza, berdin zaie metodo bat ala bestea.


Baina badakit baita ere ez dudala inoiz ere lege bat berriztu aurretik legea eztabaidatzeko egokierarik izanen. Ez dautate inoiz eritzirik eskatuko. Legea ez betetzeko erabakia ere har dezaket baina beti ere egina emanen dautate, amaitua, erabakia. Ez dautate irteera biderik utziko: legeak bete ala eskola utzi.

Ezezkoa EMANEN DUT. Datozkidan orientazioak oro krisian jarriko ditut.

Jokabide hau ezaguna zait, ene etsipenezko jokabideaz ari naiz. Nik neronek eskoletan ongi ikasja dut. Lehenik isilik egoten irakatsi zeutaten, esaneko izan nendin hezi ninduten. Errealitateaz zer ikusirik ez duen zenbait nozione abstraktoz burua gainezka egin ondoren, etsipenera makur nendin behartu ninduten. Eskolatik beldurrez josirik irten nintzen, edozer gauzak dardarka jartzen ninduen. Batez ere eguneroko bizitzaz ideia raroak sartu zeuzkidaten.

Geroz, ez dut inoiz onartuko metodoak gain behera isur dakizkidaten, errealitateaz alderatzeke eskainiko dautatenik ez dut onartuko. Ene jakinduriaren zakua betetzeko ez beste deusetarako daitezken teoria ororen aurkako bilakatu naiz. Ene haurrenganako jokabide egiazkoa aldatzen lagunduko ez dautan jakintza oro ezeztatuko dut.

Ematen dauzkidaten aginduak nondik datozen, zertarako eginak diren lehen baino arreta handiagoz aztertzea erabaki dut. Hau beharrezko jotzen dut goitik datozkidan agindu hauen aurka neure eritzi eta asmoak ordenatzeko. Honela nereak hobeki finkatuz bideari ekinen diot.



HELBURUAK ETA BURRUKARAKO MODUAK

Ene lana deusetarako ez litzateke, burruka bide berriak zabalduko ez baleuzkit, eta nere indarrak organizatzera behartuko ez banindu. Ez nere interesak aldezteko bakarrik ene burrukei dimensio politikoa eskoletako burruketan oinarritzeko. Ene lankideekin batera erabaki nahi nuke zergatik eta zertarako burrukatu. Beti gertakizunei aurrea harrapatu diezaiegun eta inoiz zain egon gabe aginduen pilak zanpa gaitzan. Ongi jakirik bait nago gaurtik agindu hauk bete, nahiz ez bete, inoiz ere perमतatuko ez daütatela, agindu hauk bere azken kausatan eztabaidatzea.

GURASOAK HARTU NAHI DITUT LANKIDE ETA BURRUKAKIDE -
TZAT.

Gurasoekin elkar ez banadi, burruka alferrikakoa izanen dela uste dut. Tippien eskola egungo familiaren ispilu dela deritzat. Akats berdintsuak ditu eta kontra-balore berdinetan oinarritzen da. Gure sozial eraketaren lege nagusia IRABAZIA da. Irabazle edo galtzaile, produktore eta produktore honen esplotatzaile, zanpatu eta zanpatzaile elkarrekin nahasirik agertzen dira eguneroko bizitzan eta bata bestetik berezten saiatu nahi nuke, nigandik hasirik.

Haurrek ez diote lege honi ihes eginen eta emanen zaien heziketa honelako banaketarik ikus ez dezaten ahaleginduko da. Honetarako jendea itsutu egin behar da. Lan hau familian hasi eta eskoletako almagazetan jarraitzen da. Eraketa hau koloka jar ez dadin pertsona bakoitzak destinoak eskaini dion giza-maila eta lanbidea onartu behar du. Aginduriko ebasioetara ihes egin eta kanpotik sorturiko beharrak asetzeko bidea egin. Hori da dena. Honen ondorenak egunero begiztatzen ditugu : beldurra, konplejoak, mitoak

eta batipat zorionik eza.

Beti baiezkoa ematera behartzen diren guztiekin, eta aginteari egoki zaion eskemaz pentsatzera behartzen diren guztiekin, guraso nahiz irakasle elkartu behar dut. Bestela hainbat jenderen hondamendira daraman bidea hartuko dut nik ere.

KEPA HERNABIDE



HEZIKETA ETA FUNTZIONALAK

Heziketa batek situazio, egoera bati erantzun behar dio. Egoera honek estruktura batzuk ditu, ekonomikoak, politikoak, kulturalak.

Beraz, heziketa funtzionala da. Funtzionala izatea da behar konkretu batzuei erantzutea. Horretarako printzipio batzuetan oinarritu behar da. Printzipio hauek razionalak behar dute izan. Guk proposatzen ditugun printzipioak gureak dira, hau da, gure irizki konkretu bat dela heziketari buruz. Heziketari buruz ez dago konzepzio absoluto bat. Beraz, printzipio hauek ez dira definitiboak, baizik-eta egungo situazioari buruz erantzun bat bezala eta gainera, guk ikusten dugun bezala.



PRINTZIPIOAK.-

Printzipio nagusia haurren beharretik eta posibilitatetik hastea da. Haurrak, berak aurkitu behar du mundua. Honela emanen luke situazio horren aurrean erantzun pertsonal bat. Horretarako material guztia prestatzea dateke lehen egitekoa. Hau lortzeko bide konkretu batzuk jarri behar dira, helburu hoiekin lotuta egon behar dutenak.

1.- ASKATASUNA

Lehen esan dugun erantzun pertsonala emateko haurrak libre izan behar du errealitateari buruz konzepzio bat aurkitzeko.

Haurrak eskubidea du bere pentsamoldean bilatzeko eta jarraitzeko eta ahal duen askatasun handienarekin konzepzio hori aurkitzeko.

Honek heziketa razional bat eskatzen du. Heziketa razional hau autoritarismoaren aurka doa. Ezin diogu haurrari pentsamolde bat inposatu. Inposatzea pertsona bortxatzea da, eta gure printzipio hauk jarraituz, ezin ditugu pertsona bortxatuak sortu.

Autoritarismoan jarraituz, guk dugun konzepzioa, guk ditugun normak, legeak inposatzen ditugu. Hau ez litzake pertsona hezitzea, domatzea, maneiitzea baizik.

Heziketa hau paternalismoaren aurka doa, era berean. Bide bat dateke autoritarismoa ez erabiliarren, nik nere konzepzioak modu hobe batetan haurrari ezartzea, hau da, hitz politen bidez nik nere ideiak haurrari ezartzea. Baina hau ere inposatzea da, eta beraz, askatasunaren aurka doana.

2.- ERRESPONSABILITATEA

Behar dira haurrak erresponzabilizatu, baina bere eginkizunetan pentsamoldeetan.

Erresponsabilitateak askatasuna eskatzen du. Jokaera baten aurrean erresponsable izateak besteen influentziatik libro egotea eskatzen du.

Besteen influentziaz jokutzen duenak ez du benetako erresponsabilitaterik.


Orduan, haurrak ez dira erresponsableak izango gure normak edo legeak inposatzen badizkiegu.

Era berean, jokaera baten aurrean erresponsable izateko hautamena egiteko posibilitatea behar du izan, hau da, jokaera bat edo bestea hartzeko posibilitatea. Guk, gure normak ezartzen badauzkiegu, posibilitate hori ebaki egiten dugu.

Gainera, jokaera batzuen aurrean hautamena egiteko jokaera hoi-
kontenidoa ezagutzea beharrezkoa da, jokaera hoi-
eskakizunak ezagutzea. Kontenidori ezagutzeko gai behar da izan
kontenidori horren aurrean erresponsable izatearren.

3.- ZENTZU KRITIKOA

Bestalde, gizarte konkretori batek proposatzen dituen balore eta eginkizunen aurrean hautamena askatu bat egiteko, zentzu kritikor bat behar da desarroilatu haur-
engan. Balore horiek kritikatu egin behar dira onartzeko edo baztertzeko. horretarako beharrezkoa da zentzu kritikor hori desarroilatzea. Beraz, balore horiek ezin dauzkiogu haur-
rari inposatu, zeren eta ez baitu izanen orduan kritika hori egiteko posibilitaterik.



Orduan, ondorio bezala, haurrari planteamendu erlijioso bat inposatzea printzipio hauen aurka joatea dela uste dugu.

FEDEA

1.- Kontuan behar dugu izan lehen mailako hurrekin ari gara lanean. Adin horretan haurren pentsakerak lokera hertsia darduka esperientziarekin. Gehienbat jasotzen dutena experimentatua da. Ez dira arrazoiketa abstrakto bat egiteko gai. Esperimentatugabeko ezaguerak nekez jasotzen dituzte, baina jasotzen dituzten ezaguera gutti hoi-
kontenidori ez dute jasotzen.

Orain, konzepto erlijiosoak ez dira esperimentalak, eta beraz, ez dira aurraren adinari dagozkionak. Haurra ez da gai konzepto

erlijioso bat hartzeko. Kontenido hauek jasotzeko pertsonaren hel^u dutasuna beharrezkoa da.

2.- Bestalde, haurren adinentzat sentidurik ez duten konzepto erlijiosoak irakaskintza bezala haurrari emateak bere pentsakera razionala determinatzeko bide bat da. Adibidez, Jaungoikoa munduaren egile bezala agertzen da. Haurrak hori ikasten du nahiz-eta bere kontenidoa ez jaso, ezin duelako.

Orduan, normala da haurrak zenbait galdereei erantzun hau ematea: Jaungoikoak nahi duelako. Zergatik egiten dira gauak eta egunak? - Jesusek nahi duelako. Eta abar.

Hau oztopo izan dateke bere adimenaren dasarroilo zientifiko arentzat.

3.- Bestalde, askatasunaren eta erresponsabilitatearen printzipioak jarraituz, gurasook eta irakasleok ezin diozkagu gure sinismenak, gure konzepzioak haurrari inposatu. Eskubiderik bai ahal dugu horretarako? Eskubidea dutela esaten dutenek ez dute heziketa zapaltzaile bat besterik onartzen.

Normala da gurasoek sinisten duten fedean haurra hezi nahi izatea, baina nahi izatetik horretara behartzea tarte handia dagola deritzagu. Bidezkoa dateken bide bakarra etsenplu jator baten bidez haurra bizitza horretara eramatea dateke.

Erresponsable izateak opzio batzuen aurrean hautamena egiteko posibilitateak edukitzea eskatzen duela esan dugu. Baita ere esan dugu erresponsable izateak opzio hoi^{en} kontenidoak ezagutzea eskatzen duela, bestela ezin dateke hautamen sakonik egin.

Beraz, haurra ez bada gai kontenido erlijiosoa ulertzeko ezin dira erresponsableak izan opzio erlijioso bat egiteko.

PLANTEAMENDU HONEN MUGAKETAK

Azaldu dugun heziketaren planteamendu hau errealitate konkretu batean praktikan jarri behar da. Hau da, herri honetako gaurko errealitatea eta ikastola, instituzio bezala, dagoen situazioa.

Heziketaren konzepzio hau praktikan jartzeko mugaketa batzuk badirela ikusten dugu. Hauek dira mugaketa nagusienak:

- Haurren jatorri soziala eta beren familietan jasotzen duten heziketa.
- Gurasoek izandu duten heziketa eta heziketari buruz daduzkaten iritziak.
- Ikastolaren mailan heziketari buruz planteamendu funtzional eta dinamiko baten gabezia.
- Ikastolak eta Elizak, instituzio bezala, daduzkaten lokera hertsia. Badakigu Ikastolak Elizaren babesean sortuak izan direla, baita ere legalizazioa sortzeko Elizaren babesean jartzea beharrezko izan dutela. Baina ikusten dugu lokera hoiek hoiek, behar konkretu batzuk soluzionatzeko sortutako lokerrak, indar gehiegi egiten dutela.
- Helburu nagusi bat bezala jartzen dugu Ikastolaren herrikoitasuna. Printzipio hau jarraituaz ahal dugun posibilitate gehienak presentatu behar ditugu herriko haur guztiak Ikastolara etor daitezten. Ikastola konfesional bat egiten badugu herrikoitasun printzipio honi mugaketa bat jartzea dela ikusten dugu. Mugaketa hau beharrezkoa ahal da?

Hauek dira gure planteamenduak mugatzen dituzten errealitateak. Baina gauzak gaur honela izanik, eta gure ekintza transformazionala baldin bada, zergatik konformatu gaurko mugaketekin?

Uste dugu denok egin dezakegun lan bat ba dagoela mugaketa hauek guttitzeko.

23 HEZURGABEAK I KASTEN

Gure aurreko lanei jarraituaz, oraingo honetan hezurgabeak ikusiko ditugu. Ez ditugu hezurgabe sail guziak aztertuko, luzeegi a litzake, eta gainera, haurrek batzuk bakarrik ezagutzen dituzte. Zertarako platelmintoak erakutsi, inoiz ikusiko ez baditu?

Hortaz, artropodoak, ekinodermoak, soinberak edo moluskoak eta harrak aztertuko ditugu pixka bat.

1.- ARTROPODOAK.-

Sail handi honetako animalia guztiak, hanka hartikulatuak eta azala gogor-samarra dituzte. Hauk dira sailaren ezaugarri berezianak eta haurrek berek erraz sailkatzen dituzte; hau da, laster konturatzen dira hartu duten zomorroa talde honetako den ala ez.

Udaberritik udazkeneraino harrapa daitezke.


Talde honen barruan ditugu :

	HANKAK	HEGALAK	GORPUTZEKO ZATIAK
OSKOLDUNAK (karramarroak)	8 eta 2 pintza	0	2
MAMUTXAK (insektoak)	6	4	3
ARMIARMAKARIAK	8	0	2
MIRIAPODOAK (ehun oindunak)	asko	0	asko

Hemen agertu ditugu, haurrek erraz ikus ditzaketan ezaugarri batzuk, sailkatzea berek egin dezaten. Obserbazio-lan interesgarriak egin ditezke honela.

Artropodoekin eta batez ere mamutxekin, kolezio politak egin ditzakegu. Honetarako, lehenengo "acetato de etilon" isurkian bustitako algodoi bat pote batean sartu eta hara botako ditugu, potea ongi hetsiaz.

Hil bezain laster atera eta kortxo baten gainean orratz batekin eutsi eta lehortzen ipini. Ximeletak direnean, hegalak ongi ikus ditezten, kortxoan bertan gorputza sartzeko zulo herstu bat egin behar da eta hegalak zabaldu eta orratzekin eutsi. Lehortu direnean,



azpian kortxoa ipini diogun kaxa txapal batean erantsi orratzekin eta leiarrezko tapa batekin ongi hitxi, hustel ez ditezten.

Interesgarria izan daiteke mamutxak arrautzetatik, mamutxa egin arte igarotzen duen antzaldatzea ikustea.

Horretarako nahikoa dugu, udaberrian, aza-ximeleta, pinu-ximeleta edo beste edozeinen arrautzak biltzea. Pinu ximeletak, pinuetan egiten dituzte, algodoizko kabi antzerakoetan.

Hauen har edo eltxarrekin kontuz ibili behar da, gorputzetik pozoin bat botatzen dute, eta begietara helduz, batez ere, min handia egiten dute. Arraultzerik aurkitzen ez bada, eltxarrak har daitezke eta ongi histen den kaxa batean sartu alde egin ez dezaten. Ahal dela, leiarrekin edo "metalizko sare" batekin estaltzea hobe, kanpotik ikus ditezten.

Gehienetan eltxarrak jale handiak izaten dira eta hostoak eman behar zaizkie; azarenak (aza ximeleta denean), pinuarenak

(pinu ximeletak direnean) eta abar.


2.- EKINODERMOAK :

Itsas ertzean bizi direnak izango dute batez ere hauk ezagutzeko bidea. Sail honetan ditugu itsas izarra, ikinua, ofiura eta abar. Itsas ertzean arroka inguruetan asko izaten dira, eta alkool edo edo formoletan gorde daitezke.

Animalia hauk bizirik hartuz gero, ibiltzen ikustea benetan ikusgarria da: Anbulakro deritzaien bentosa antzeko batzuen bitartez egiten dute.

3.- SOINBERAK : edo moluskoak ere alkool edo formoletan gorde daitezke osorik. Bestalde, hurrei kontxa kolezioak egitea asko atsegin zaie. Honetarako ere itsas ertzean bizi direnak posibilitate gehiago dute. Kontxak ezagutzeko badira liburuxka batzuek.

4.- HARRAK : Sail honetan ezagunenak, anelidoak edo zizareak ditugu. Hauei, bizileku bat erraz egin liezaieke egurrezko kaxa handi samar batekin (30x30x15 zm¹koa, esatebaterako). Alde b



tean leiar bat jarri behar da, barruan zer gertatzen den ikus dadin.

Kaxa ia goraino bete, lehenengo hondarrez (A), gero lurrez (B) eta ondoren lur beltzez edo gorotz hustelez (mantilto) (D). Kapa bakoi

tza ongi zapalduaz hurrengoa jarri baino lehen. Azkenekoaren gainean hosto batzuek jarri, letxugarenak edo. Zizareak sartu eta noizean behin ur pixka bat bota lurra lehor ez dadin.



LIBURUAK

R. Tucker Abbot. Coquillages, espèces du monde entier.
Ed. Le petit guide Hachette.

790 kontxa marrazki dituen liburu txiki bat da. Erderatua dagola uste dut.



IRUINEKO



IKASTOLA ETA ERlijioA

Sarrera bezala esanen dut nere asmoa ez da ikastoletan erlijioa nork eman behar duen erabakitzea; elkar-hizketako giro bat sortzea baizik, guztion iritziak azaltzeko eta denon artean iritzi jeneral batera irixteko.

Batikano II'garrenak esaten digu:

"Eliztar komunitatea bere bazkide guztiei heziketa osoa eman beharrean aurkitzen da"; "baina bakoitzaren ahalmenak eta ofizioa kontuan edukiaz. (Erromako azken sinodua, 29-X-71)

Herria eta komunitatea denok gara, bai apaizak, bai hezitzaileak, bai gurasoak. Ikastola, sendia bezala, bide bat da herriaren eta haurraren nortasuna aurkitzeko, eta horregatik elkarrekin denok lana egin behar dugu.

Beste arazo bat sortzen zaigu:

Denok ados gaude geure bizitza eta geure lana herriaren eta haurraren zerbitzuan eta heziketari begiratuaz enfokatu behar dugula.

Baina, geure bizitzan eta geure heziketan ikusi dugu nola erlijioa mundu guztiko kulturaren krisi aldian, asignatura bat bezala ezarri daukutela bere bizitasun eta indar guztiak kenduaz. Gainera, erlijioa ez da ikusi izan gauza oinarrizko bezala pertsona eta gizartearen erakunde osoan, beste jakinduri bat gehiago bezala baizik; hau beste zenbait gertakizun sozio-politiku eta historikori lotuta, bai erlijio eta bai moral uka-ezinezko atzerapen batera iriñxi garen arte.

Eta haurrari, maila honetan, ez zaio erantzunik eman, ez sendian eta ez eskolan, eta hau buruzko ikasketa batera aldatu da bai -

zik.

Guk nahi dugun heziketarako, gizonaren balore garrantzitsuenak (kultura, izpiritu, gizartea, e.a.), erakunde honetan sarturik hau da, elkarkidetzanak, errespetuenak, askatasunarenak, e.a. aurka daude. Guk hartu dugun heziketa, indibidualista delarik, gauzak edukitzeak du balioa gure artean eta ez bakoitza nor izateak, eta sozial giroak batez ere.

Eta gauza hauen aurka joateko ahal den objetibitate handienez haurra hezitzen hasi behar dugu ikastolan; beraz, nola emango diogu erlijio ikuspegia haurrari erakutsi behar dizkiogun balore izpirituzko hauetan, zeren-eta batzuen ez bait dute sinisterik eta beste batzuek z lantza frango badugulako.



Beraz, ez ahal da lan hau: kristau heziketa ematea, alegia, doktrina bezala noski, arazo honetan osatuak dauden pertsonen lana i-zango, nahiz apaiz, nahiz andereino?

Beste aldetik, ikastola ene ustez, ez du izan behar ez akonfesionala eta ez ere konfesionala, ezer erantsi gabe, leku bat denoren heziketarako baizik.

Zergatik ez osatu denon dagokigun eginkizun hau komunitate eta gizon bezala eta ez ibili beti izateko arrazoirik ez duten joka bidea eta posturak hartzen?

Eta beti haurra isilik; eta haurrak nozitu behar. Gure eztabaida hauekin haurraren nortasunari zaio kalte egiten.

ANTZERKIAREN BALIOA

Eguerdi artean antzerki bat eman dugu ikastolan. Eta ez nola nahiko antzerkia: geurok asmatua, geurok antolatua eta geurok egin edo jokatu ere duguna. Horregatik, gertatu zaiku hain interes resgarri.

Ordu lauren bat iraun du gehienik. Bai, aski luzea izan da hurrek asmatu eta egin ahal izateko, eta bai mamitsua eta aberatsa ere. Zinez eta benetan egin du jokalaria bakoitzak berari zegokion papera.


Izan ere, haurra, sortzetik da eboluzio batean bizi den izakia. Horren hasiera deus guti izanik, bere inguruan topatzen dituen oztopoekin loturik arkituko da.

Jaiotze mementotik adieraziko dauku, keinu bidez, bere esanahi, atsekabe eta sentipen oro.

Horra hor, ene ustez, antzerkia non oinarritzen den haurra arrazoin bidetik askatasunerat eramateko laguntza egokia delako

iritzia. Gure bizitza antzerki luze bat bezala da funtzean.

Haurrak bere esanahi, pentsa mendu eta jokabideak keinu berezien bitartez adieraziko dauzkigu eta egoki azaldu ere azalduko dauku bere ikuspegia: keinuak, hitzak eta arrazoinak elkarrekin lotzen dituelarik, dena dela ere ematen ari den arazoa edo gertakizunari buruz.



Orain etsenplutzat emanen dudan hau, berek mementoan pentsaturiko edo asmaturiko gai bat da eta hor ikusiko dugu, gai bat antzetzten dutelarik, horri buruz haurrak zer-nola pentsatzen edo zer gisatako jokabidearen jabe den.

Horrela, bada, beraiantzat guztiz interesgarri izanik, zernahi

gai nahiz haurrari zuzenik dohazkionak, nahiz guraso eta familia barneko edo herriko gertaerak idurikatu eta ematen saiatzen gara.

Haurrak, ez da dudarik, bere pentsamolde eta jokabidearen berri airoski emango dauku, eta are errazkiago bere buruaren ganako konfiantza irabazten dohan heinean.

Lehengo batetan eman genuen gaiari buruz agertuko dautzuet adibidez, elkarrizketa zati bat. Bi haur, neska-mutikoak, senar-emazte bezala agertzen ziren, eta beste bi haur hauen haur bezala, ikastolan dabilzan haurren papera egiten. Egun batez, sekulako iskanbi bila sortzen da senar-emazteen artean, haurrak berandu datozela eta.

- Senarrak, honela esan zion: "Orain ere gure umeak arreta handiarekin datoz etxera.
- Emazteak.- Ez dakir zer ikasten duten, baina etxera zuzen e tortzen ez behintzat.


Eta gisa horretan jarraitzen du senar-emazteen elkarrekiko solasak. Handik gerora haurrak etxera sartu bezain laster ekin diote gurasoek, oihu batean, ea non egon diren hainbat denbora galdetuz.

- Seme zaharrenak.- Lagunekin egon gara. Nolaz, gero etxetik ateratzen ez diguzun uzten....
Ama! utz iguzu lagunekin ibiltzen. Nik asko maite dut nere laguna!
- Amak.- Ez.
- Biak.- (Bi semeak negarrez bazterrean jarririk honela zioten elkarri:) Andereñoak laguna maitatzeko, elkarrekin ibili behar dela eta elkarri laguntzeko esaten dauku, eta guri etxean uzten ez.!!

Horra hor haurrak gaia nola moldatu eta bere sentipen edo arrazoi zointxoen berri ematen duen.

Eta antzerkiaren bitartez, seguru nago, askatzen doha haurra eta ta bere jokabidea nola den edo nola izango litzateken agertzen du. Honetaz zerbait esateko duenak eman beza, nik pozik eta kontent hartuko dut-eta.

LUIS MARI




32 IKASTALDIAK

Martxoaren azkenean egin behar genuen ikastaldia hausteko izan ziren eragozpen haria aurreko aldizkarian emana da. Hala ere, guztia hontan bukatu ez zenez gero, bailaratako arduradunak bildurik, hona zer erabaki zen:

a).- Loiolan ezetza eman zigutenek (Aita Laborda eta bertako ikastola-batzordeak alegia) erabaki hau artzeko izan zituzten arrazoiak idatzirik eman zitzaizkiguten eskutitz bana egitea.

b).- Bitartean ikastaldi bera egiteko ahaleginak egitea. Honetarako, lehenik Donostiako Seminarioan eskatzea erabaki zen.

Gure lehen erabakiari buruz, oraindik Aita Labordaren eskutitza bakarrik hartu dugu eta hau esaten du bertan: "lehen, itzez eman nituen bi arrazoi haiek ez dut orain zergatik idatziz eman behar dudarik ikusten." Hala ere han arduradunoi agindu zeukunaren zai jarraitzen dugu.



Seminarioan eginiko eskaerari erantzuna emateko egun bat izendatu zeukun bertako zuzendariak eta hona egun hori pasatzean eskuz-esku idatzirik eman daukuten erantzuna:

"...Penagarri zaigu bengan, baiñan ezin dizuegu oraingoan eman Seminario onetan ikastaldia egiteko eskatu diguzuten baimenik.

Arazo hau aztertu duan Seminario ontako apaiz-taldeak, Ikastolen alde lana egiten duten askoren berri ugariak bildurik, eta Gotzai Jaunarekin ere artuemanak izanik, erantzun au bearrera iritxi g^ura; eta au, ikastolen gaurko une berezia ikusirik, eta batez ere, g^ure Seminarioak gaur bizi duan Eliz-Barrutiko egoera, -gaurko ego^era larria, - kontuan edukirik”.

Berri hau hartu bezain laster beste posibilitaterik bazegoen-^edo ikus-miran hasi ginen, baina ezezko franko hartu ondoren hainbesteko taldea biltzea ezinezkoa dela etsi ahal izan dugu. Bestalde lanerako ere, zenbat eta talde ttikiagoa egokiago deritzagu. Ba koitzaren lan eta aportazioak dira taxuzko lan baten ardatz, eta talde handian ez daiteke honelakorik egin. Hau esatean badirudi g^uk eraturiko ikastaldia ez datorrela honekin ados, baina beti gure indarren neurrian ibili behar eta Bartzelonatik etorriko ziren bi irakasle hauekin egin ahal izanen zen lana, ahalik gehien probetxa nahi genuen.


Dena dela, bistan da ezin garela hontan gelditu, baizik aurrera behar dugula jarraitu. Udako ikastaldia ere gainean da. Has gaitezen irakasle bakoitza zer-nolako eraketa ikusten duen adierazten eta lana prestatzen.

Bai ikastaldiak eta bilkurak ere, ongi eratuak direlarik behintzat, guztiz beharrezko gertatzen zaizkigu, eta hontarako behar ditugun bideak bilatzen j^ohatea guztion eginkizun da. Has gaitezen ikastaldiaren ikuspegi zabal bat egiten :

- a.- zer mailatan
- b.- zenbateko taldeak eta non nongoak
- d.- zer gai
- e.- bakoitzaren esperientziak prestatzen
- f.- gure organizazioari buruzko zenbait bide markatzea, honela, lanean ari den irakasle bakoitza bere kidekoekin talde lan batetara presta dadin.

Azkenik ohar hau : Ikastaldiari buruz eman den berriaz bailarako arduradunarekin hitzegin dezakezute eta ostatu eta sarrerara ko eman zenuten orddin saria ere hauen bidez zabalduko da.

ARANTZA



ESPRESIO KURSILOA, ARTE ESTHOLIANE

Martxoaren 27'tik 30'ra, lau egunetan, hogetahamarbat ande-reño, espresio kursilo bat zela ta, Debako arte-eskolara inguratu ginen.

Euskalerra osotik, franko herrietakoak han ginen; Bilbotik Ondarrabira, eta Ondarruatik Irunera. Izan ere, gai hauetaz, arduraduten irakasle asko ikusten bait da, zonbait ikastoletan.

Hasieran, elkarren ezaubidea egin bitartean, denok ginen, ilusioz beterik eta galderak sortu ziren, zer edo nola prestatua zen jakin arte. Forma-hizkuntzaren probokazioa, Imajinaren oharpena eta espresio teknikak ziren aztertu genituen puntuak.

Baina eta hitzetik-hortzera, hitz soilletaz baliatzen gara, gure barrua azaltzeko edo eta zerbait komunikatzeko. Hala ere beste bide eta posibilitate batzuk badira; baina normalean bazterturik uzten ditugunak. Kursiloan, sensibilitate giro berezi bat gertatu zen: hitz bakoitza gauzak eta keinuak ere, heien sentidu sakona agertzeko. Holako giro berezian hitz, gauza, edo keinu bakoitzak, zeresan eta indarrik handienak bilakatzen dituzte; eta heietaz baliatzean, ohartu gindezke eguneroko sentidutik at diren beste mairirik ere badutela. Ezaugarri bakoitzak inguru eta giro bakoitzaren zer bat adierazten du. Eta baldintza bezala sensibilitate giro hau dugu beharrezko. Agerpen bakoitzaren zeresanetaz ohartzeko.

Interesgarria litzake aztertzea, kursilo bezala ekar ditzaken ondorioak. Kursilo hitza baztertu nahirik "espresio saioa" izan zela esanen genuke. Saio guzti hauk, ariketa bezala planteatuta zegoen, ekintza bidea lehen mementotik planteatuz, saioak aurrera eramateko.

Parte hartzaileen eskuetan zegoen, askotan saio bakoitzaren hedadura. Saioaren hasierak, prestatuak, eraturik baziren ere (motibazioak, elementuak, musika...) espontaneidadeak, leku berezia izan zuen kursilo guztian. Hemen argi ikus daiteke, erreakzioak beti gure mailakoak zirela eta inolaz ere "haur" gaia ez zela (hiru lehenengo egunetan behintzat) azaldu. Kursiloaren helburua zen: haur espresioa haur plastika lortu baino, irakasleen eta andereñoen espresioa lortzea lehenik, zaulitasuna lortu genezan. Puntu hau zabaltearren esaneri genuke, kursiloak ez zuela inolako soluziobide jeneralik eman. Asmoa ez zen gaurko, mementoko plastika arazoak eta hutsuneak (handiak badira ere) estaltzea, baizik-eta zenbait bide irekitzea, posibilitate zenbait hatzematea eta hemendik aurrera, ikastola bakoitzeko andereñoek, hein arazo prezisoak, beraien soluzionatzea.

Azken eguneko erakusketak (Kataluniar eskolako plastika lanak) erresultadoak bezala erakutsiak izan ziren. Erresultado soil haik lortu behar direnik ez dugu uste (helburu bezala).

Espresio bideak (ez eskulana edo espresio erresultadoak) aztertutak izan ziren lehenengo egunetan, eta bide horretatik atera litekeena ez daiteke erakus edo kursilo batean azal.



Orainarteko plastika kursiloak, erru batean erori dira beti: Erresultadoen espresioa planteatu dutela gehienik, soluzio jeneralegiak emanaz.

Planteamendurik sakonena zera izan zen: ESPRESIOA----KOMUNIKAZIOA.

Espresioa, neurri batetan, beti azaltzen dena da, baina espresioa eta komunikazioa ez dohaz beti elkaturik.

Espresio gaberik, komunikaziorik ez.

Komunikaziorik gabe espresiorik bai?

Kursiloari jarraipena ematea litzake interesgarria benetan, bertan eginak izan ziren planteamenduak eztabaidatu eta aztertzeko. Kursiloaren filme bat, kritika eta zintak jasoak izan dira, kursiloa osatzearen eta jarraipen bat lortzearen.

LARRAMENDI

MENDIZABAL



Din Jar... BOLEARAN

1.- Lehendakari aldakuntza.- Oraindik orain, duela zenbait aste, Federazioko lehendakariak, hots, Iñaki Elizalde, kargua utzi behar izan du, zeren-eta emaztea hil bait zaio. Gure doñu minak berari. Ordainez, lehendakari berria hautatu beharrean gertatu da Talde Bateragilea delakoa, eta ozta-ozta baina Iñaki Olartek irabazi du bozetan. Inoren kontseilari azaldu nahi izateke, badugu, halere, zertxobait berari esateko: ez dadila gehiegi fida federazio fantasma baten egituretan, non-eta herri eta bailara bakoitzean, gurasoen eta irakasleengan finkaturiko ekintza edo mugimendujatorrari eragiten entseiatzen ez den, eta behinola bezala, berriro ekin eta efikaziaz jarraitzen ez dion guraso jendeak.

Aspaldi danik ezagutzen dugu gure adiskide Olarte, eta horregatik mintzatzen gatzazkio gisa honetan, bere lehengo pentsamolde eta ikuspegia arras galdurik ez duen itzaropena badugulako oraino.

2.- Seminarooko arduradunen ezetza.- Sokak badu jarraipena, nonbait, eta ez dugu espero berehalakobatetan etendurarik ikustea. Zenbaki honetan berean emanik da ezetz honen berri. Alabaina, galde bat edo beste egin nahi luke berrikeriari honek. Hona galdeak: zer susmo dabil, egun, goiko Elizaren edo eliz-gizonen artean, edo-eta zer egosten ari ote da hor ikastolen kaltetan? (Ikastolak aipatzean, ez dut soilki irakasle jendea adierazten nahi). Jarrera bat ote, eta jarrera hertsia oztopogarria, herri

a herri bōlakatzen ari den bere nortasunaren prozesu bidean? I - kastoletan fededūnik ez delako beldurra ote da galanki adierazten hauen baitan eta erabakietan?

3.- Ikastola liburutegia.- Lau liburuxka berri inprimatzen daude, lau autore desberdinen lanak hain xuxen. Gaiak: Durango-aldea, Artzainak, Laborantza eta Lurraren kondaira. Ondotik bada tor multzo bat ere.



non lana elkarren lanaren aberasgarri.

Lehenak abegi onez ikusiak izan dira agidenez, baina bestek egin onartzea ez dela aski oharitzen ere hasi behar genuke. Bada garaia, noski. Liburuxka berriok heldu diren heinean, dohala irakasle bakoitza, berak ere bakarren bat edo beste moldatu behar duen ideia egiten. Orduan izanen da de

3.- Mintzairari buruz,- Hirugarren eta laugarren mailako haurrentzat laster dira fitxa gisa argitara emanik Euskara edo Mintzairari buruzko bilduma bi. Aldez aurretik, inprentaratu baino lehen alegia, egin diren kritika eta maiseaketak bide lan baliosa dela pentsa daiteke. Dena dela, ibiliaz ibiltzen dugula ikasiko etsi beharrean aurkitzen gara eta.... lanari gogotik atxiki beharrean.

4- Ikastola-Hiztegia.- Zerbair behar, eta beste gabe ikasto letan onartu delakoan gaude gure hiztegia, zeren-eta beroni buruz eginiko kritikarik sakonenak, salbu zenbait iritzi, ikastolez kanpotik etorri bait zaizkigu. Hilabete batzuk johan dira argitara eman zenez gero, eta agian heldu da ohar eta kritika ororen bilduma egiteko garaia. Besteak beste, mila esker Mitxelena, MUxika, Peillen, Txillardegi, Zatarain, etab. zuen ohar estimagarrien gatik!

Berriketari
72-V-6.an



NON - ZER

Apurrak	1
Aintzin solasa	2
Kontzientziarazteaz	4
Domestikazioaz	8
Irakasle baten gogoetak	12
Heziketa eta fedea	18
Hezurgabeak ikasten	23
Ikastola eta erlijioa	27
Antzerkiaren balioa	29
Ikastaldiak	32
Espresio-kursiloa arte eskolan	35
Din dan...Boleran	38
Non-zer	41

